

GATAZKAN BARNAKO BIDAIA

Alex Carrascosa 2021


Pertsona garen aldetik, ulertzen dugu "izaki sozialak" garela; hala ere, zaila egiten zaigu soziabilitatearen dimentsioak ulertzea, batez ere, gutxitan aztertzen ditugulako mugitzen gaituzten interesak, beharrak edo pentsamoldeak.

Gure erditzetik, instintiboki hasieran eta gero eta kontzienteago, gure jokabidea patroia beraren ondorio da: baliabideak, ekintzak eta estrategiak aktibatzea, gure mantenu-, afektu-, pertenezia- eta autoerrealizazio-beharrak asetzeko.

Izan ere, nekez erreparatzen diogun arren, osatzen dugun giza multzo bakoitzean —familian, lagunartean, talde zein erakundeetan— elkar urratzen eta talka egiten duten atomoak bezalakoak gara. Edozein tokitan, nor bere interesa bilatzen du, eta helburu horretan, haren gisako beste pertsona batzuekin topatu eta bekaltzen da.

Pertsona bakoitzarengan gatazkak adierazpen hirukoitz bat du: baitakoa, elkarren artekoa eta kultura artekoa. Norberaren baitan, gatazkak bateraezinak diren bi helbururen arteko *dilema* baten forma hartzen du —jokoan dagoen *gaia* alde batean eta zaindu beharreko *harremana* bestean—; interpersonek, baliabide edo ondasun eskas bat eskuratzeko lehia bezala agertzen da; eta kulturen artean, balio- edo sinesmen-sistemen arteko antagonismo gisa. Halaber, balio- edo sinesmen-sistemek arketipoak (erreferentzia-ereduak) eta estereotipoak (edo 'besteari' buruzko klise edo irudi finkatuak) eragiten dituzte, eta, horiekin lotuta, bestearekiko harreman- eta jokabide-ereduak.

Halere, gizakian gatazkak dimentsio anitzak badu ere, giza elkarrekintzetan apur bat baino ez da ikusgarri. Eta, hori irudikatzeko, ohikoa da "icebergaren" analogia. Giza jarrerari aplikatuta, icebergak balio digu azaltzeko, oharkabea edo kontzienteago, askoz ere gutxiago erakusten dugula ezkutatzen duguna baino.




ICEBERGAREN ANALOGIA BAKUNA

Icebergaren ageriko zatiek gure posizioak erakusten dituzte, zorrotzak eta elkarrengandik urrun. Posizioak "armagabetzeko" lehen urratsa nire interesak arakatzea da eta, are sakonago, horiek eragiten dituzten beharrianak argitzea. Oinarritzko 5 interes daude: (1) *Biziraupena* (materiala); (2) *Afektua* (lagunen arteko estimua); (3) *Afiliazioa* (kidetasun kolektiboa); (4) *Ekitatea* (edo 'justizia egokitua'); eta (5) *Estatua* (botere indibiduala eta besteekiko posizioa). Eta horien guztien azpian premia komun bat dago: *Segurtasuna*.

Halaber, interes horiek hiru funtsezko beharrianetan bil daitezke: (1) *Biziraupena* (materiala); (2) *Estimua* (pertsonala); eta (3) *Aintzatespena* (taldekoa, soziala).

Alderdi bakoitzaren posizioa eragiten duten interesetara jaistean, guztiek hartzen dute beren sustrai komunaren kontzientzia. Izan ere, premiak berdin-berdinak dira pertsona guztientzat. Maila horretatik alderdi denak daude prest elkarriketa norbere interes zehatz eta zehatzetatik abiarazteko, eta ez proiektzio, inferentzia eta suposizio faltsuetan oinarritutako jarrera defentsiboetatik. Eta elkarriketa hori baliagarri izan daiteke norbere premien aseari eta elkarren arteko osaketari ekiteko.



“ICEBERG-SUMENDIAREN” ANALOGIA KONPLEXUA

Giza jokabideak eta elkarreraginak zehaztasun handiagoz azaltzen saiatuz gero, icebergaren analogia konplexuago bilakatzen da. Izotz-masa trinkoaren ordez, sumendi flotagarri bezala agertzen da.

Kraterrak emozioak adierazteko bideak dira. Beherantz, tximinia horiek *hazi dualek* osatutako sare batekin konektatzen dute. Hazi dual horiek, berriz, beharrianen geruza maila gero eta sakonagoetan banatzen dira.

Hazi bakoitzaren nukleoan behar fisiologikoak (biziraupen fisikokoari dagozkionak) daude taupaka. Nukleo horiek, pultsio eta desio moduan, haziak polarizatzen dituzte. Eta polaritate bakoitzak esanahi desberdina hartzen du kokatuta dagoen geruzaren arabera.

Geruza horiek "iceberg-sumendiaren" egitura osatzen dute, muintetik azalerantz: barne-geruza bat, non *segurtasun*-interesak kokatzen diren; hori inguratuz, tarteko beste geruza bat, *afektu*- eta *pertenentzia*-interesaren kokaleku dena; eta kanpoko geruza bat, *autonomia*-, *estatus*- eta *botere*-interesetarako.

ICEBERGAREN ANALOGIA ERAKUNDEEI APLIKATUTA

"Iceberg-sumendia" pertsonen analogia bat da, edo geure buruarekiko zein elkarren arteko gatazkara bultzatzen gaituen barne-mekanismoarena, hain zuzen ere.

Premien kontzientzia hartzean, balioak agertzen dira. Balioek norberaren erabakiak, bizimodua eta nortasuna xedatzen dituzten motibazio pertsonalak deskribatzen dituzte. Bestela esanda, beharrak eta balioak txanpon beraren ifrentzu eta aurkia izan daitezke.

Pertsonak bezala, erakundeek ere beren balioak dituzte; motibazio batetik eta helburu baterantz sortuak dira. Ildo horretan, funtsezkoa da entitate jakin baten balioak eta entitate hori osatzen duen pertsona bakoitzaren balioak ikusarazi eta erkatzea. Orduan, erakundearen balioen eta balio pertsonalen arteko bateratasun- edo oreka-maila ebatz daiteke, edo aitzitik, sistema horren barruko entropia-, desordena- edo ziurgabetasun-maila.

"Iceberg-sumendira" itzulita, balioak azal ikusgarri gisa agertzen dira; hala ere, azal hori pitzatu egin daiteke eta, balioak arriskuan hautematen direnean, arrakalak bide eman diezaioke ezkutuko premia baten adierazpen emozional eta jariakorrari.

Hiru estandar erabilgarri daude interesak behar bezala tratatzen diren neurtzeko. Horietakoren baten faltaren pertzepzio subjektiboak sumendiaren erupzioa eragingo luke:

- **Justizia** edo tratu koherentea komunitate edo talde baten ohitura, legedi, antolaketa-praktika eta aurreikuspenen arabera.
- **Zintzotasuna** edo harreman eta komunikazioaren zuzentasun eta errealitatearen zentzua, manipulaziorik eta engainurik gabe.
- **Gaurkotasuna** edo unean uneko egoeraren araberako arrazoizkotasuna, errealitatearen aldakortasunera egokitua.